

Gaiak

Internet bidez soilik emititzen duen lehen telebista euskalduna sortu dute

Erreportaje, albiste, hitzaldi eta elkarrizketak zabaltzen ditu 'www.euskaraz.tv' helbidean

Non dago baliabide berrien muga?

ÁLEX FERNÁNDEZ

E JOSÉ LUIS ARGIBANO uskal Telebistaren sorrera lan nekeza izan zen, zalaparta eta ustekabe ugariaren ondoren egina. Teknologia berrien gaurko garaian, apalago, isilago sortu da telebista euskalduna Interneten. Hitzkuntza zaharra eta baliabide modernoak uztartuz, www.euskaraz.tv helbidean ordenagailuz edonoren eskura dago jadanik sarean telebista euskalduna. Diru gutxi baina eskarmentu nahikoarekin, Proyección ekoiztetxeak beldurrik gabe heldu dio erronkari.

Aipatutako helbidera jo besterik ez dago albisteak, hitzaldiak eta beste hainbat bideo ikusteko. Hauxe da euskarazko telebista Interneten. Ez dago, momentuz, zuzeneko emanaldirik, baina grabaturiko material guztia batuz, hamar orduko emanaldia osatzeko adina bada. Ordenagailua, doako programa (Real Video) eta konexio arrunta nahikoak dira ikusle eta entzule bihurtzeko.

Lau kazetari dabilta lanean. Bakoitzak lanaren fase guztiak betetzen ditu —grabazioa egin, irudia estudioetan digitalizatu eta sarean ipini—, ondoren,

Etxean ikusteko ordenagailua, doako programa bat eta konexio arrunta besterik ez dira behar

hainbat posta elektronikoko bidaltzen dituzte erakunde, unibertsitate eta bestelako elkarteetara, jakin dezaten sarean dituztela euren intereseko albisteak.

Apenas dago antzeko esperientziarik, ez behintzat Euskadi edo Espainian. Egia da Euskal Telebistak pantailan emandako hainbat bideo digitalizatu eta Interneten dauzkala eskigita, baina Euskaraz.tv da sare-erako propio egindako kate bakarra.

Dena den, bide erdia jorratuta zegoen. Proyección ekoiztetxea 1990 urtearen amaieran sortu zen telebista programak ekoizteko. Hamar urte geroago, 2001an, *Proyección.tv* erdarazko telebista katea sortu zuten —zenbait saio ekoiztu zuten ETBrentzat; bertan trebatu ziren langileak eta egun, diseinu eta tresneria teknikoak berberaz baliatuz, euskarazko katea sortu dute.

Gerardo Fernández kazetaria dugu taldeko arduradunetako bat. "Apal" hasi direla dio baina gora egiteko asmoa dute, hori bai, autofinantziazioa sendotuz. Bide bikoitza dute horretarako: "ohiko publizitatea" eta *Zabalik* kanala. Azken honetan, edozein talde edo instituzioi lekua alokatatu dezake eta bere mezuaz zabaldu.

Komunikabide berriaren arduradunak pozik daude orain arteko esperientziarekin. Ez du-



Oñian, Gerardo Fernández kazetaria, Euskaraz.tv kanaleko arduradunetako bat, komunikabideek Bilbon duen erredakziorik behar, erredaktore bat, elkarrizketa baten grabazioa digitalizatzen. J. LUIS ALBERTO GARCIA

Irudi eta hitzak ordubete

Gertakizuna izan eta ordubete eskigita dago bideoa www.euskaraz.tv helbidean. Zer ikusi daiteke bertan? Komunikabideak bost kanal ditu: albisteak, hitzaldiak, turismoa, *Expo-ari* eta *Zabalik*.

Albisten kanalak gaurkotatuta du helburu, politika, ekonomia, kultura zein gizarte arloetan, bi multzotan

banaturik: informazioa eta elkarrizketak. Hitzaldien atala interesgarria da oso. Hor daude Jon Arretxe, Paulo Iztueta, Bingen Zupiria eta Bernardo Atxagaren hitzak, etenik gabe jasoak. Turismoari buruzko gurgazioek Euskal Herriko gida birtuala osatzen dute berez. Eta erakusketa

artistikoei bisita birtuala egitekotan, *Expo-ari* kanala dago. Guggenheim, Artium eta Arte Ederretako Museoaren bilduma iraukorrek zein beste hainbat aretotan erakusketak aurki daitezke bertan. Azkenik, *Zabalik* kanala dago — sarean *alokagai* dagoen lekua, nolabait auzalzeko—, bere buruaren berri

ikus-entzunezko formatoan jakitera eman nahi duten enpresa, instituzio eta erakundeei zuzendua. Gainera, telebistaren ohiartzuna saretik haratago heltzen da, irriti batzuk prentsaurrekoetara informazioa jasotzera joan beharrean helbide honetara jo eta bertatik "lapurtan" ditutako soinu seinalea. "Denok gaude mundu berean", diote telebistako arduradunek, atsegabe handirik gabe.

te euskarazko kanalarik buruzko daturik, baina erdarazkoak 1.500 bisita inguru ditu eguneko eta bakoitzaren batez-besteke iraupena zortzi minutukoa da, nahiko luzea, beraz, sareko beste orrialdeekin alderatuz behin-

tzat. Gerardo Fernándezek garbi dauka, gainera, eskaintza "berria" eta errentagarria" dutela esku artean, "euskalduna eta abangoardiakoa". Zailtasunen artean, irudiak formato txikian ikusten direla

ordenagailuko pantailan. Tamaina handitzea posible da egun, baina ikusleek Interneteko banda zabaleran bidez jasotzerik baino ez lukete izango irudia, eta horrela bisitarien multzo handi bat galduko lukete.

Euskaraz.tv aurkeztu berri dute, "Internet bidez lehen telebista euskalduna", bere arduradunen arabera. Bere *web* orrialdera sartzen bagara, bideoak *streaming* sistemaren bidez *on-line* ikus ditzakegu. Era honetan, irudiak eta soinuak jasotzeko, Internet-era konektatuta egon behar dugu eta Real Video programa instalatuta eduki. Baina gauza bera egiten du 2000ko martxotik Euskal Telebistak, bi kanaletako zenbait programa zabaltzen baititu bere *web* orrialdearen bidez.

Ekimen hauek guztiak esker-tzekoak dira, ez baita batera erraza euskarazko edukia —batez ere ikus-entzunezkoak— sarean aurkitzea. Baina, lehenengoa edo azkena izatea ez da garrantzitsua, baizik eta Internet eta telebistaren arteko loturak eskaintzen dituen aukera berriak aprobeztatzea, eduki eta zerbi-tzurik onenak erabiltzailerik emateko. Dena dela, Internetek oraindik ezin du eman telebistak behar duen irudi eta soinu kalitatea, ezta egungo ADSL edo banda zabalak ere. Internet bidezko telebista lehenengo urratsak ematen hasi da eta oraindik asko hobetu behar du. Nolanahi ere, gero eta enpresa gehiago ari dira sartzen negozio honetan, Estatu Batuetan batez ere.

Beste alde batetik, bideoak emititzea, edo DivX formatu konprimatuan grabatutako pelikula eskuratzea, teknologia berri eman dezaketena kontuan hartuta, aukera apalak baino ez dira. Kontuak kontu, teknologia azkar garatzen da, eta hurrengo urteetan ondoko galderaren erantzuna jakingo dugu: Internet Telebista bidez edo Telebista Internet bidez? Teknologia berrien gururik ospetsuenak, Nicholas Negropontek, "konbergentzia" hitza erabiltzen du, esateko telebista, Internet eta telefonoa batera eta leku guztietan egongo direla, eta ez bakarrik ordenagailuetan.

Gainera, telebista digitalarekin denetarikoa edukia eta zerbitzuak jasotzea izango dugu: goi-definizioko irudi eta soinuak, interaktibitatea, programa pertsonalizatuak, salerosketa elektronikoa, Internet eta ezagutzen ditugun eduki eta zerbitzuak, baita etorkizunean sortuko diren berriak ere. Horregatik, aditu askok uste dute telebista hargailua etorkizuna dela, aipatutako eduki guztiak tresna horretatik pasatuko baitira.

Ildo horretatik, 50eko hamarkadatik telebista *adimenduna*-ren egitasmoan lan egiten ari dira, nahiz eta emaitzak ez diren orain arte oso onak izan. Espainian, adibidez, *Quero* plataforma saiatu zen ideia hori garatzen, baina porrot egin zuen. Adituen arabera, 2010. urteetik aurrera ikus-entzunezko mundu digital hori etxean hasiko gara ikusten. Agian baikorregi dira, baina hargailuen fabrikatzaileak, kable edo satellite konexioa ematen duten enpresak, zerbitzu multimediala ekoizteak, telebista pribatu zein publikoak eta bestelako enpresak gogor ari dira esparru honetan lanean, jakitun baitira negozio handia izan daitekeela.